



# **0-5 URTE BITARTEKO HAURREN ARRISKU- ETA BABESGABETASUN- EGOERAK IDENTIFIKATZEKO ADIERAZLEEN GIDA**

UDAL GAI AK BILDUMA



**0-5 URTE BITARTEKO  
HAURREN ARRISKU-  
ETA BABESGABETASUN-  
EGOERAK  
IDENTIFIKATZEKO  
ADIERAZLEEN GIDA**

VITORIA-GASTEIZ 2019



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## AURKEZPENA

Gasteizko Udalaren egitekoa da, besteak beste, “gure udalerriko haur eta nerabeen eskubideak babestea, beraien ongizatea xede, eta horretarako beraien beharriaz erantzuten zaiela bermatuko duten prebentzio eta babes neurriak garatzea”.

2018ko maiatzaren 25eko Osoko Bilkuran adierazpen instituzionalaren bidez onetsitako Gasteizko Haur eta Nerabeentzako II. Tokiko Planak (2018-2022) bere helburuen artean du “gizarte-eragile guztiek eta herritarrek haur-babesgabetasuna eta haurren aurkako tratu txarrak goiz detekta dezaten sustatzea”, zehazki, honako ekintza espezifiko honen bitartez: “beste sail eta sistema batzuetako eragileei zuzendutako Haurren eta nerabeen babesgabetasun- eta arrisku-egoerak detektatzeko adierazleen gida bat eginez eta zabalduz”.

Beste alde batetik, 2017ko irailaren 11n onetsi zen “Udalaren Gizarte Zerbitzuen eta Udalaren Hezkuntza Zerbitzuen arteko lankidetzaren eta koordinazio-protokoloa, ahultasun sozioekonomikoaren egoeran eta/edo babesgabetasun-egoeran dauden zein horren arriskua duten 0 eta 3 urte bitarteko haurrei hezkuntza eta arreta emateko”. Protokoloaren barruan jasotzen da horrekin loturiko gaietako profesionalak prestatzea eta gaitzea, eta berariaz aipatzen da haur-babesgabetasuna detektatzea eta haren aurrean esku-hartzea.

Horren barruan, 2017-2018 ikasturtean, bi prestakuntza-jardunaldi egin ziren Udalaren bost haur-eskoletako langileekin:

“Haurrak gure hirian. Udalaren haur-eskoletan matrikulatutako haurrek izan ditzaketen ahultasun- edo babesgabetasun-egoerak”. Ibaiondo Gizarte Etxean, 2017ko abenduaren 28an eta 29an.

“0 eta 3 urte bitarteko haurretan ahultasun- eta babesgabetasun-egoerak detektatzen eta familiarekiko harremanean sakontzea”. Montehermoso Kulturunean, 2018ko uztailean.

Prestakuntza-jardunaldi horietatik atera ziren ondorioetako bat izan zen Udalaren haur-eskoletako langileek eduki behar zutela haurren babesgabetasun- eta arrisku-egoerak detektatzeko adierazleen gida bat.

Gida hau, horrenbestez, Udalaren haur-eskolen kolektiboaren berariazko eskaera baten ondorioz sortu da, baina helburua du 0 eta 5 urte bitarteko haurrekin lan egiten duten profesional eta gizarte-eragile guztientzat baliagarria izatea; izan nahi du, halaber, tresna erabilgarri bat gerta litezken haurren ahultasun- edo/eta babesgabetasun-egoerak goiz detektatzeko eta prebenitzeko.

**Jon Armentia Fructuoso**

*Gizarte Politiken, Adinekoen eta Haurren Saileko Zinegotzia*

**Ignacia Arruabarrena Madariaga**, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Psikologia Fakultateko irakasle agregatuak egin du gida hau. Ibilbide akademiko eta profesional luzea du, 1986az geroztik haurren babesaren eta familia-indarkeriaren gaian zentratuta; oinarrizko eta aplikatutako ikerkuntzan jardun du, programak eta zerbitzuak ezartzen eta ebaluatzen, Haurtzaro Zerbitzuetarako jarduketa-protokoloak, tresnak eta eskuliburuak egiten, administrazio publikoak aholkatzen eta unibertsitate- eta lanbide-prestakuntza ematen. Liburu eta aldizkari espezializatuetan argitaratu du; gaiari buruzko zenbait argitalpen teknikoren egile eta laguntzailea da, eta hizlari nazioko zein nazioarteko biltzarretan. Bereziki eskertu nahi diogu Udalaren haur-eskoletako langileei zuzendutako haur-babesgabetasunari buruzko bi prestakuntza-jardunaldietan (2017ko abenduan eta 2018ko uztailen) eta material hau egiten parte hartu izana.

Gida Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuan prestatu eta editatu dute Loli García García zerbitzuburuak eta Susana García Elburgo Balorazio Ataleko buruak.

Eskertu nahi dizkiegu, halaber, Haurtzaro, Lourdes Lejarreta, Sansomendi, Zabalgana eta Zaramaga Udalaren haur-eskoletako langileei beren ekarpenak, dedikazioa eta ilusioa.

**Loli García García**

*Haurtzaro eta Senitarte Zerbitzuko burua*



**IGNACIA ARRUABARRENA MADARIAGA**, *Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Psikologia Fakultateko irakasle agregatua. Beraren ibilbide akademiko eta profesional luzea 1986az geroztik hurren babesaren eta familia-indarkeriaren gaian zentratu du; oinarrizko eta aplikatutako ikerkuntzan jardun du, programak eta zerbitzuak ezartzen eta ebaluatzen, Haurtzaro Zerbitzuetarako jarduketa-protokoloak, tresnak eta eskuliburuak egiten, administrazio publikoak aholkatzen eta unibertsitate-eta lanbide-prestakuntza ematen. Liburu eta aldizkari espezializatuetan argitaratu du; gaiari buruzko zenbait argitalpen teknikoren egile eta laguntzailea da, eta hizlari nazioarteko zein nazioarteko biltzarretan.*



# AURKIBIDEA

## 0-5 URTE BITARTEKO HAURREN ARRISKU- ETA BABESGABETASUN-EGOERAK IDENTIFIKATZEKO ADIERAZLEEN GIDA

	<b>ORR</b>
Haurren babesa	10
Zergatik diren kalteberagoak haur txikiak	11
Nolako garrantzia duen haur-eskolak inplikatzek zailtasunetan dauden haurrei eta familiei laguntzen	11
Arazo emozionalak haur txikietan: Zerbait ez dabil ondo	11
Nolako garrantzia duten prebentzio eta esku-hartze goiztiarrek	13
Haurrak eta nerabeak babesteko lege-esparrua	14
Esku-hartze goiztiarra: Haurren babesgabetasunaren tipologiak, eta haiek antzemateko adierazleak	16
Tratu txar fisikoak	17
Zabarkeria	21
Premia fisikoekiko zabarkeria	22
Segurtasun-premieko zabarkeria	24
Premia kognitiboekiko zabarkeria	25
Premia emozionalekiko zabarkeria	25
Laburpena: Zabarkeria erakuts dezaketen adierazleak	27
Sexu-abusua	28
Tratu txar psikikoak	29
Beste tipologia batzuk	33
Prebentzioa: Familia eta haur kalteberak	34
Haurrentzako tratu hobea: Berez babesgabetasuna ez dakarten baina konpondu beharko liratekeen helduen jokabideak	36
<b>Eranskina &gt; 0-5 urte bitarteko haurren oinarritzko premiak: Asebetetzearen adierazleak</b>	<b>38</b>

## HAURREN BABESA

Haurrak hazteko tokirik egokiena euren familia da, maite eta babesten dituzten helduen zaintzapean.

Baina lana ez da erraza. Guraso guztiek dituzte zailtasunak eta mugak. Hala ere, beren gaitasunak eta beren laguntza-sarea baliatuta, gehienek lortzen dute behar dituzten zaintzak eta arreta ematea seme-alabei.

Zenbait gurasok, baina, zailtasun eta muga handiagoak edo ugariagoak dituzte, edo une jakin batzuetan areagotzen dira zailtasun eta muga horiek. Zailtasunek beraiengan zein kanpoko faktoreetan izan dezakete jatorria. Usuenetakoak izaten dira estres-, depresio- edo antsietate-maila handiak, heldutasunik eza, nekea, bakardadea, zailtasun ekonomiko handiak, bikoteko indarkeria edo gatazka larria, edo drogen edo alkoholaren gehiegizko kontsumoa. Zenbait haur haztea, halaber, erronka handiagoa da, dituzten ezaugarri bereziak direla eta (hala nola desgaitasunak, osasun-arazoak, jokabide-zailtasunak...). Inguruabar horiek guztiek eragin negatiboa izan dezakete gurasoek —edo haien eginkizunak betetzen dituzten beste heldu batzuek— seme-alabak behar bezala zaintzeko eta haiei arreta emateko duten gaitasunean, eta haiei arreta nahikorik ez ematera edo kaltetzera irits litezke. Horrelako egoerei haurren babesgabetasuna esaten zaie.

Haurrek eskubidea dute babestuak izateko. Gizartea garen aldetik, guztion erantzukizun kolektiboa da haien segurtasuna eta ongizatea bermatzea, eta mehatxa ditzaketen egoeretatik babestea. Gizarte Zerbitzuek eginkizun garrantzitsua dute horretan, baina ez dute haur eta familia horiengana iristeko zuzeneko bide naturalik. Hori dela eta, zuzeneko kontaktu hori duten zerbitzuen eta profesionalen inplikazioaren eta laguntzaren premia dute —batik bat, hezkuntza- eta osasun-arloetakoak—, haiek oso egoera onean baitaude arazoak identifikatzeko eta kasuan behar diren laguntza- eta babes-neurriak abiarazteko.



## ZERGATIK DIREN KALTEBERAGOAK HAUR TXIKIAK

Haur txikiek arrisku handiagoa dute familian babesgabetasunaren biktima izateko, fisikoki zein emozionalki ahulak direlako, eta helduen guttiz mendekoak direlako beren oinarrizko premiak asetzeko (ikusi “0-5 urte bitarteko haurren oinarrizko premiak: Asebetetzearen adierazleak” eranskina). Eta zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta handiagoa da arriskua. Hizketan ez dakiten hurrek ezin dute beren burua defendatu, besteak beste, ezin diotelako inori jakinarazi zer gertatzen zaien: min egiten ari zaizkiela, zerbait falta zaiela, edo beldur direla.

## NOLAKO GARRANTZIA DUEN HAUR-ESKOLAK INPLIKATZEAK ZAILTASUNETAN DAUDEN HAURREI ETA FAMILIEI LAGUNTZEN

Haur-eskolak dira toki bakarra non haur txikienak egunero ikusten baitituzte beraien itxura fisikoa, jokabidea eta garapen-prozesua behatzeko prestakuntza duten pertsonak. Haur-eskolak izan daitezke gurasoren batek seme-alabak hazteko zailtasunak izan ditzakeela edo badituela edo babesgabetasun-egoera gertatu dela susmatzen edo antzematen den lehen tokia.

Halaber, haur-eskolak toki ezin hobeak dira orientazioa eta laguntza emateko agian zailtasunetan dauden gurasoei, eta eman diezazkiekete bai laguntza emozionala, bai haurren garapenari buruzko informazioa, bai diziplina-estrategia egokiak; haienezako ereduak izan daitezke; lagun diezaiekete harreman positiboak izaten seme-alabekin, eta, behar dituzten laguntza-zerbitzuetara bidera ditzakete, horrelakorik behar izanez gero.

## ARAZO EMOZIONALAK HAUR TXIKIETAN: ZERBAIT EZ DABIL ONDO

Haur txikienek beren garapen-prozesuari eragiten dioten arazo emozionalak izan ditzakete, eta, izaten dituzte; izan ere, elkarri estu-estu lotuta daude osasun mentala eta garapena. Oso adin txikietan zantzu argiak ager ditzakete hurrek: antsietate-nahasmenduak, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduak, jokabide-nahasmenduak, depresioa, trauma osteko estresaren nahasmendua, edo

neurogarapenaren nahasmenduak (autismoaren espektroko nahasmenduak, kasu). Haur txikiek oso era ezberdinean prozesatzen dituzte eta erantzuten dute esperientzia emozional eta gertaera traumatikoen aurrean, haur helduagoek edo pertsona helduek egiten dutenaren oso bestelakoan. Horren ondorioz, zailagoa izan daiteke diagnostikoa haur oso txikien kasuan.

Arazo emozional gehienak ez dira osasun mentaleko arazo bihurtuko, baldin eta garaiz heltzen bazaie. Arazo horiek zenbait kausaren ondoriozkoak izan daitezke. Besteak beste, familiak zailtasunak izatea, edo babesgabetasun-egoerak gertatzea. Aukera horiek kontuan hartu eta aztertu behar dira beti.

### **Haur txikiek zailtasun emozional garrantzitsuak dituztela adieraz dezaketen jokabideak**

Baldin eta behean zerrendatutako jokabideak (1) argi hautematen badira, (2) denboran irauten badute, eta (3) ez badatoz bat haurraren adinaren, sexuaren eta kulturaren arabera espero litekeenarekin, orduan esku hartu behar da.

#### **Arlo emozionala:**

- Antsietatea: aldentze-antsietatea, beste pertsona batzuekin kontaktuaren aurreko antsietatea, beldurrak.
- Portaera disruptiboa, arreta zentratzeko zailtasunak.
- Norberaren, beste pertsona batzuen edo gauzen kontrako portaera erasokorrak.
- Tristura, apatia, bakartzea, uzkurutasuna.

#### **Arlo kognitiboa:**

- Garapeneko atzerapenak: hizkuntzaren garapenean, garapen motorrean, autismoaren espektroko nahasmenduak.

#### **Sexualitate-arloan:**

- Jokabide hipersexualizatua.

## PREBENTZIOA ETA ESKU-HARTZE GOIZTIARRA

Inoiz ez da beranduegi esku hartzeko, baina hobe da ahalik eta lasterren egitea.

Haurren babesgabetasuneko egoerak prebenitzea da aukerarik egokiena, eta egin daiteke. Horretarako, identifikatu behar da zer gurasok duten seme-alabak hazteko zailtasunak edukitzeko arriskua, eta eskaini behar zaizkie laguntzeko zerbitzuak eta baliabideak.

Horrela egin ezin izan bada, eta dagoeneko arazoak badaude haurrei ematen dizkieten hazkuntzan eta arretan, funtsezkoa da esku-hartze goiztiarra egitea. Haurrekiko tratu txarrak edo zabarkeria era puntualean gerta daitezke, baina, eskuarki, errepikatzen den ohitura izaten dira. Oro har, zenbat eta denbora luzeago igaro, orduan eta larriagoak izaten dira ondorioak. Zenbat eta lehenago hartu esku, orduan eta aukera handiagoak daude arazoa konpontzeko eta haurrek sekuela negatiborik ez izateko.



## GIZARTE ZERBITZUEN EGINKIZUNA

Gizarte-zerbitzuek lege-agindua dute haurren babesgabetasunaren kasuetan esku hartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, udalaren gizarte-zerbitzuen eskumenekoak dira gizarte sentsibilizatzea eta larritasun ertaineko haurren babesgabetasunaren kasuak prebenitzea eta haien aurrean esku hartzea; larritasun handiagoko kasuetan esku hartzea, berriz, lurraldeko gizarte-zerbitzuen (foru-aldundien) eskumenekoa da. Zehazkiago jakiteko zerbitzu horiek zer irizpide tekniko erabiltzen dituzten erabakitzeko babesgabetasun-egoerarik dagoen eta haren larritasuna balioesteko, ikusi Balora Tresna ([http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/balora/eu\\_doc/adjuntos/BALORA\\_EU.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/balora/eu_doc/adjuntos/BALORA_EU.pdf)).

Haurren batek bere familian tratu eta arreta egokia jasotzen ez duelako edo horrelakorik gertatzeko arriskua dagoelako kezka edo susmoa edukiz gero, Udala Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute herritarrek eta profesionalek horren berri emateko.

## JARDUKETA-PRINTZPIO OROKORRAK

Indarrean dagoen legediak honako printzipio orokor hauek ezartzen ditu gizarte-zerbitzuen jarduketarako:

- Prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra sustatuko dituzte.
- Gizarte-zerbitzuen lehentasunezko jarduketa izango da gurasoei laguntza ematea beren seme-alabak behar bezala artatzeko eta familia-unitatea mantentzeko.
- Haurraren oinarriko segurtasuna eta osotasuna bermatzeko erabat ezinbestekoa denean baino ez dute bereiziko bere familiatik, eta lan egingo dute ahalik eta lasterren elkartzeko familia berriz.
- Erabakiak hartzerakoan, haurren interes gorena izango da lehentasunezko irizpidea. Interes-gatazkarik egonez gero, haurren eskubideak lehenetsiko dira beste inoren eskubideen aurretik.
- Sentikortasuna, zintzotasuna eta errespetua erakutsiko dira gurasoekiko harremanetan.
- Beste zerbitzu batzuekin lankidetzan lan egingo dute, haiekin koordinatuta eta diziplinartekotasunez.
- Bizkor hartuko dute esku.

## HAUR-ESKOLEN LEGEZKO BETEBEHARRAK

Estatuko legeriak (Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa, eta Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoa) zein EAEko legeriak (Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea) honako betebeharrak ezartzen dizkiete haur eta nerabeekin lan egiten duten profesionalak:

1. Laguntza eman behar diete behar duten haur guztiei;
2. dituzten susmoak edo antzeman dituzten kasuak jakinarazi behar dizkiete gizarte-zerbitzuei; eta
3. horiei lagundu behar diete eskatzen dieten informazioa emanaz.

*“Pertsona edo agintari orok, eta batez ere bere lanbide edo eginkizunagatik, adingabe baten tratu txarren egoera, desanparo-arriskuko edo balizko babesgabetasuneko egoera bat atzematen badu, gertueneko agintaritzari edo haren agenteei jakinaraziko die, behar lukeen berehalako laguntza emateari utzi gabe.” (1/1996 Legearen 13. artikulua).*

*“Lege honen II. tituluko I. kapituluan aurreikusitako helburuak betetzeko, administrazio publiko eskudunek, interesdunaren baimenik gabe, adingabearen egoera baloratzeko behar diren datuak bildu eta tratatu ahalko dituzte, berari buruzkoak zein bere familia- edo gizarte-inguruneari buruzkoak.*

*Profesionalek, erakunde publikoek eta pribatuek eta, oro har, edozein pertsonak administrazio publikoei helaraziko dizkiete eskatzen dituzten adingabeen, beren guraso, tutore, zaintzaile edo harreragileen inguruko txostenak eta aurrekariak, horretarako beharrezkoak badira, eta horretarako ez da behar izango eraginpean dagoenaren baimenik.”(26/2015 Legearen 22. quater artikulua).*



Haurtzaro goiztiarrean eta lehenengo haurtzaroan, babesgabetasunaren zenbait tipologia bereizten dira. Guztietan, behar bezala erantzun gabe geratzen da haurren oinarritzko premiaren bat, fisikoak, kognitiboak, emozionalak, sozialak eta segurtasunekoak barne (ikus Eranskina). Hauexek dira babesgabetasunaren lau tipologia nagusiak: tratu txar fisikoak, zabarkeria, sexu-abusua eta tratu txar psikikoak. Horietako bat bakarrik ager badaiteke ere, batera ageri ohi dira normalean.

### Haurren babesgabetasunaren tipologia nagusiak haurtzaro goiztiarrean eta lehenengo haurtzaroan

1. Tratu txar fisikoak
2. Zabarkeria (premia fisiko zein psikiko eta segurtasun- eta prestakuntza-premien aurrean)
3. Sexu-abusua
4. Tratu txar psikikoak
5. Beste batzuk (tratu desegokia, ustelkeria, eskaletasuna, lan-esplotazioa...)

Haurrak babesgabetasun-egoeran daude honako bi egoera hauek gertatzen badira:

1. batetik, gurasoek **jokabide desegokia** badute (egintzaz zein ez-egitez; fisikoa, psikologikoa zein sexuala),
1. eta, bestetik, jokabide horrek **kalte nabarmena eragiten badio** haurrari (**fisikoa, emozionala, kognitiboa edo soziala**), edo kaltea izateko arrisku larrian jartzen badu.

Haurren babesgabetasuneko egoerak ez ohi dira familiatik kanpoko pertsonen aurrean gertatzen, eta horrek zaildu egiten du egoera antzematea. Hala ere, zenbait portaerak, sintomak eta zantzuk ohartaraz gaitzakete hori gertatzen ari dela. Haurrekin eta familiekin lan egiten duten profesionalek adierazle horiek ezagutzen badituzte eta identifikatzen badituzte, laguntza-prozesu bat abian jarri ahal izango dute. Oro har, aldi berean adierazle batzuk egiaztatzean antzematen da haurren babesgabetasuneko egoera, ez adierazle bakar batekin.

Hiru adierazle mota bereizten dira:

1. Gurasoen jokabidea.
2. Haurraren adierazle fisikoak.
3. Haurraren jokabidearen adierazleak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea haurrengan adierazleak ikustea babesgabetasuneko egoera egon daitekeelako seinalea baino ez dela, eta ez duela nahitaez esan nahi gertatu denik. Bestelako zailtasun batzuen ondorio edo isla izan daitezke, hala nola arazo organikoak, familiako aldaketak, pertsona maiteren baten galera, edo egonkortasuna galarazten duten beste egoera batzuk. Hala ere, **bost urtetik beherako haur batek agertzen baditu arazo emozional handiak edo horiek denbora luzez irauten badute, edo jokabidea edo jarrera bat-batean aldatzen baditu, horiek kezkatzeko seinaleztat jo behar dira beti.**

**GARRANTZITSUA: Familian babesgabetasun-egoera baten biktima izateari buruz hurrek egiten duten edozein adierazpen BETI hartu behar da aintzakotzat.**

## TRATU TXAR FISIKOAK

Tratu txar fisikoak dira gurasoen erasoen ondorio zuzenez haurrak kalte fisiko garrantzitsua jaso duen edo hori jasotzeko arriskua duen egoeretan. Erasoak mota askotakoak izan daitezke: eskuarekin edo beste gorputz-atal batekin emandako kolpeak (ostikoak, adibidez), objektuekin emandako kolpeak, haginka egitea, atximurrak, erredurak eta abar.

Bost urtetik beherako haurrak dira kalteberenak tratu txar fisikoen aurrean, fisikoki ahulak baitira eta ezin baitute arriskutik ihes egin.

Erasotzailearen asmoak ez du eraginik portaera bat tratu txar fisikoa den ala ez erabakitzerakoan. Izan ere, gehienetan, tratu txarraren helburua ez da izaten haurrari kalte egitea, baizik eta egoera jakin bat kontrolatzea, frustrazioa edo hira adieraztea edo tentsioa askatzea. Dena den, bereizi egin behar dira istripuzko lesioetatik; horiek ohikoagoak izan daitezke ezaugarri jakin batzuk dituzten haurren kasuetan, eta ez dira tratu txar fisikoen ondorio.

Haurraren lesio fisikoak dira tratu txarren adierazlerik argiena. Hala ere, sarritan, zailak izaten dira erabateko ziurtasunez interpretatzen, eta nahas daitezke istripuzko lesio arruntekin.

---

## NOLA BEREIZI ISTRIPUZKO LESIOAK ETA ISTRIPUZKOAK EZ DIRENAK

Haurrek askotan egiten dituzte ubeldurak eta zauriak jolastean. Gorputzeko atal edo hezur irtenak (belaunak, ukondoak, besaurreak, bekokia...) aukera handiagoa dute kalteak izateko. Ehun biguneko atalak (masailak, ipurmasailak eta izterrak), berriz, ez ohi dira kaltetzen horrelako egoeretan. Gainera, haurrek istripuz egiten dituzten ubeldurek, nekez izaten dituzte forma definitua, hala nola esku baten, gerriko baten edo helduen hortzen forma. Horrelako markak tratu txar fisikoen adierazgarriagoak izaten dira.

Ubeldurak ez bezala, sabelera edo burura (bereziki zaugarriak dira gorputz-atal horiek) zuzendutako tratu txarrak maiz ez dira antzematen, barnekoak baitira kalteak. Sabeleko kalteek hantura, biguntasuna eta gorakoak eragin ditzakete. Buruko kalteek garunaren hantura, zorabioak, konorte-galera, erretina-askatzeak eta heriotza ere eragin ditzakete. Horien barruan sartzen da “haur astinduaren sindromea” izenekoak, haurra bortizki edo indarrez astintzearen ondorioz gertatzen dena. Horrek garuneko eta begietako kalte itzulezinak eragin ditzake, baita heriotza ere. Bi urtetik beherako haurren kasuan gertatu ohi da, baina adin handiagokoen kasuan ere gerta daiteke.

### Istripuzkoak ez diren lesioen ezaugarriak

- Kokapena, antzinatasuna eta forma (ikusi ondoko koadroa)
- Horren berri ematen dutenen kontakizunak ez datoz bat
- Lesio mota ezberdinak agertzen dira batera
- Lesioak ez datoz bat haurraren garapenarekin
- Atzerapen handiz jo dute medikuarenera
- Beste laguntza-zentro batzuetan artatutako “istripuen” aurrekariak daude (hausturak, zauriak...)

## Istripuzko lesioen eta istripuzkoak ez diren lesioen kokapena, antzinasuna eta forma

### KOKAPENA

#### Istripuzko lesioak

- Hezurren irtenguneetan edo ertzetan.
- Gutxitan izaten dira bi aldeetan.

#### Istripuzkoak ez diren lesioak

- Agerian geratzen ez diren gorputz-ataletan.
- Ez dute zerikusirik izaten hezurren irtenguneekin (sabela, genitalak, bizkarra, ipurmasailak, eskuen atzealdea, belarriak...).
- Ez dute patroiz zehatza izaten. Gorputzaren bi aldeetan ageri dira.

### ANTZINATASUNA

Hematomen ohiko bilakaera: 1.-2. egunetan: Urdin-gorrixka; 3.-5. egunetan: Purpura-urdina; 6.-7. egunetan: Berdea; 8.-12. egunetan: Horia; 13.-28. egunetan: Osatuta.

#### Istripuzko lesioak

- Lesio guztiak bilakaera-une berean daude.

#### Istripuzkoak ez diren lesioak

- Lesioak osatze fase ezberdinetan daude

### MODUA

#### Istripuzko lesioak

- Ez ohi da identifikagarria izaten zer objektuk eragin dituen

#### Istripuzkoak ez diren lesioak

- Lesioa eragin duen objektuaren forma izan ohi dute: hatzak, hatz-koskorrak, kableak, gerrikoak, gerriko-belarriak, esekigailuak, eskuilak, oinetakoak, sukaldeko tresnak, oholak, hortz-arkuak...



---

## HAURRAREN ADIERAZLE FISIKOAK

- Hausturak. Sudurraren edo barailaren hausturak, edo hezur luzeen kiribil formako hausturak.
- Ohiz kanpoko urratuak edo ubeldurak, kopuruari, formari edo kokapenari dagokienez. Urratuak edo ubeldurak izatea aurpegian, ezpainetan edo ahoan, edo enborraren, bizkarraren, ipurmasailen edo izterren eremu zabaletan; orbaintze fase ezberdinetan; ohiz kanpoko formakoak edo eraso egiteko erabili den objektuaren formakoak edo forma horretan taldekatuta.
- Objektu jakin batzuen edo zigarreten edo zigarroen forma zehatza duten erredurak, edo ur berotan murgilduz egin izanaren zantzuak dituztenak.
- Zauriak edo urratuak ahoan, ezpainetan, hortz-oietan eta begietan, edo besoen, hanken edo enborraren atzealdean.
- Barne-lesioak, garezurraren hausturak, garuneko kalteak, hematoma subduralak, asfixia eta itotzea.
- Ebakiak eta sastadak.
- Gizakien hortzen marka errepikatuak (helduen hortz-arkuaren tamainakoak).

**GARRANTZITSUA: Bi urtetik beherako hurrek edozein haustura izatea alerta-seinalea da. Oro har, hausturak ez dira antzematen erradiografiarik egin ezean; haurrak, dena den, hantura izan dezake artikulazioren batean, edo minduta edo narritakor iruditu dezake.**

---

## HAURRAREN JOKABIDEAREN ADIERAZLEAK

- Oso beldurti agertzen da beste haur batzuek negar egiten dutenean.
- Oldarkor edo erronkari agertzen da, aurkakotasun-portaerekin.
- Helduen beldur dirudi. kontaktu fisikoari muzin egiten dio edo saihesten du.
- Portaera suntsigarriak agertzen ditu, bere buruarekin zein beste pertsona batzuekin.
- Oldarkortasun-mendekotasuneko muturreko portaerak.
- Behin eta berriro beldurra edo errefusa agertzen du gurasoetako baten aurrean, berak eskolan hartzen duenean.
- “Istripuak izateko joera” duela esaten dute.
- Dagoen eguraldirako desegokiak diren arropak janzten ditu (adibidez, mahuka luzea eta praka luzea udan), lesioak estaltzeko.
- Behin eta berriro kexatzen da min fisikoaz (adibidez, burukoa edo urdailekoa), arrazoi argirik gabe.
- Esaten du etxean eraso fisikoak egiten dizkiotela.

## GURASOEN JOKABIDE-ADIERAZLEAK

- Ez dute haurraren lesioari buruzko azalpenik ematen, edo, ematen badute, azalpenak ez du logikarik, edo ez da konbentzigarria, edo kontraesanetan dago, edo denbora igaro ahala aldatzen da.
- Aitzakia ugari jartzen dute haurraren lesioaren inguruan, eta garrantzia kentzen saiatzen dira.
- Lesioa ezkututzen saiatzen dira, edo nork egin duen ezkututzen.
- Berandu bilatzen dute haurrarentzako osasun-laguntza.
- Osasun-zentro batetik bestera joaten dira.
- Etengabe egotzen diote errua haurrari, edo etengabe kritikatzten dute.
- Diziiplina zorrotza erabiltzen dute, haurraren adinerako eta ezaugarrietarako eta egindako okerrerako desegokia.
- Bortitz erakusten dute beren burua, bulkada erasokorrek kontrolatzeko zailtasunekin.

## ZABARKERIA

Zabarkeria da arretarik eta erantzunik ez ematea haurraren oinarrizko premiei, horiek fisikoak, segurtasun-arlokoak, kognitiboak zein emozionalak izan (ikus "0-5 urte bitarteko haurren oinarrizko premiak: Asebetetzearen adierazleak" eranskina). Garrantzitsua da bereiztea noizbehinka arreta ez egiteko portaerak eta zabarkeria. Muturreko kasuetan izan ezik, etengabeko edo ohikoak diren kasuetan bakarrik hitz egiten da zabarkeriaz.

Tratu txar fisikoen kasuan bezala, adin txikieneko haurrak kalteberagoak dira zabarkeriaren ondorio negatiboen aurrean. Babesgabetasun-tipologiarik ohikoena da, eta beste tipologia "deigarriagoak" (tratu txar fisikoak, kasu) bezain kaltegarria edo haiek baino kaltegarriagoa izan daiteke.

Gurasoen asmoak ez du eraginik zabarkeria egon den ala ez erabakitzerakoan. Kasu gehienetan, gurasoek ez dute haurrari kalte egiteko asmorik. Egoera horien kausa ohikoenetako batzuk izaten dira gurasoek ezagutza, gaitasun edo laguntzarik ez izatea, edo haien heldutasun eza, pobrezia edo arazo psikologikoak.

---

## PREMIA FISIKOEKIKO ZABARKERIA

Babesgabetasuntzat joko da guraso batek haurraren premiei erantzuten dien modua, baldin eta hari kalte garrantzitsua eragin badio edo eragin badiezaioke. Zenbait kasutan, zailak izan daitezke balioesten (adibidez, gurasoek ohikoak ez diren elikadura-ohiturak badituzte, edo medikuntza alternatiboak erabiltzen badituzte), eta osasun arloko profesionalak egindako balioespen espezializatuak zehaztuko du ohitura horiek zer ondorio duten edo izan dezaketen haurrarengan.

Premia fisikoei erantzutearen esparruko zabarkeriak, bost arlori eragin diezaieke:

### 1. Elikadura

Elikadura arloko zabarkeria gertatzen da baldin eta haurrak desnutrizioa, deshidratazioa, intoxikazioa, oso gehiegizko pisua edo bere osasunerako arrisku larria dakarren beste arazoren bat badauka ematen zaizkion jakien kantitatea edo kalitatea (elikadura-ekarpena) egokiak ez izatearen ondorioz. Haurrak osasun-arazorik eduki ez arren medikuek dieta aldatu behar dela esanbidez adierazi eta hori egiten ez den egoerak ere jotzen dira zabarkeriatzat. Haurtxoei eragiten badiete, egoera horiek larritasun berezikoak dira.

### 2. Osasun fisikoa zaintzea

Osasun fisikoa zaintzearen arloko zabarkeriak, honako egoera hauek hartzen ditu barne:

- Haurrak jasotzen ez badu tratamendua behar duen lesioren, zauriren edo gaixotasunen baterako zainketa medikorik, beranduegi eraman badute medikuarenera, edo, eraman arren (gurasoetako baten ekimenez zein ikastetxeak emandako jarraibideei jarraituz), tratamendua behar bezala betetzen ez bada.
- Familiaren etxean bizi den norbaitek gaixotasun kutsakorren bat badu eta hartzen ez badira kutsatzeko arriskua saihesteko edo murrizteko behar diren higienaren zein osasunaren arloko neurriak. Zabarkeriatzat jotzeko, beharrezkoa da egoerak haurraren osasunerako mehatxu larria ekartzea, edo, gutxienez, haurra zenbait alditan gaixoarazi izana.
- Haurrak neke nabaria eta, horrekin batera, jokabide-nahasmenduak erakusten baditu (esaterako, suminkortasuna, geldotasuna, kontzentratzeko zailtasuna...) familiaren ohituren edo ordutegiaren ondorioz behar adinako atsedena edo loa egiten ez duelako.
-

Pediatriak jarraipena egitea eta txertoak jartzea ez dira nahitaezkoak; gomendioak baino ez dira. Horiei ez jarraitzea ez zabarkeria, berez, haurrak premia bereziak dituenen izan ezik.

### 3. Jantzia

Honako egoera hauek zabarkeriatzat jotzen dira: familiak baliabideak eduki arren, haurrak arropa egokirik ez badu bere adinean arrunt eta beharrezkoak diren jarduerak egin ahal izateko, edo eguralditik behar bezala babesteko.

### 4. Higiene pertsonala

Higiene pertsonalaren arloko zabarkeria gertatzen da baldin eta higiene falta oso nabaria badago (haurra zenbait astetan dutxatu ez bada, gorputz- edo aho-kirats gogorra badu, arropa zikin eta seguruenik kendu ezin diren orbanekin badarama, ilean janari-hondarrak edo gorozkiak baditu...), eta horren ondorioz haurrak:

- a) tratamendu medikoa behar izan duen gaixotasunen edo arazo fisikoren bat izan badu, edo
- b) arazoak izan baditu gainerako hurrekiko harremanetan, higiene faltaren ondorioz baztertu dutelako.

### 5. Etxebizitzaren higiene- edo bizigarritasun-baldintzak

Etxebizitzaren higiene-baldintzen arloko zabarkeria gertatzen da zikinkeria handia etengabe metatzen denean. Muturreko kasua da hondakin organiko ustelen metaketa; horri loturik joan daitezke intsektuen, parasitoen zein beste animalia batzuen izurriak, eta horiek gaixotasun edo lesio larriak eragin diezazkiekete haurrei.

Horren barruan sartzen dira, halaber, egoera arriskutsuan dauden etxebizitzak, eta gutxieneko ekipamendu eta zerbitzuak falta dituztenak (txorrotako ura, berokuntza, argindarra, janaria prestatzeko ekipamendua, komuna...)



---

## SEGURTASUN-PREMIEKIKO ZABARKERIA

Segurtasun-premiei erantzuteak berebiziko garrantzia du adin txikieneko haurren kasuan: gainbegiratzea eta babes-neurriak behar dituzte etengabe, arriskuaz ohartzen ez baitira, edo oso gutxi ohartzen baitira, eta gaitasun txikia baitute beren burua arriskuetatik babesteko.

Segurtasun-premiekiko zabarkeriak, hiru arlo hartzen ditu barne:

### 1. Familiaren etxeko segurtasun fisikoa eta arriskuen prebentzioa

Haurrak honako arrazoi hauengatik istripu larriak izateko arriskua duen egoerak: etxean egoera arriskutsuak daudelako (adibidez, instalazio elektrikoa egoera txarrean egoteagatik, elementu arriskutsuak eskura izateagatik...) eta haurra gainbegiratu ez dagoelako, edo haurrak arrisku handiko jardueretan parte hartzen duelako (ausarkeriaz gidatzea, kasu).

### 2. Gainbegiratzea

Honako egoera hauek daude gainbegiratzearen arloko zabarkeriaren barruan:

- Haurra bakarrik uzten da, edo argi eta garbi bera zaintzeko gaitasunik ez duen pertsona baten kargura uzten da (adibidez, hamabi urteko haur baten esku, nabarmenki adingabea den pertsona heldu baten esku edo heldu ezgaitu baten esku), eta ezin da bermatu pertsona helduren bat garaiz etorri ahal izango dela arrisku-egoerarik gertatuz gero.
- Haurren kontrako sexu-abusuko edo indarkeriako aurrekariak dituen pertsona baten kargura uzten da haurra.
- Haurra bakarrik edo gainbegiratu gabe uzten da bere bizirako arrisku larria izan daitezkeen egoeretan, edo ez dira hartzen behar diren prebentzio-neurriak arrisku larrietatik urruntzeko.
- Gurasoek ez dute behar adina gainbegiratzen haurra, eta ez ohi dute jakiten zehazki non dagoen eta zer egiten ari den.

### 3. Beste pertsona batzuek egindako tratu txarreko edo abusuko egoeretatik babestea

Egoera hauetan, haurrak tratu txarrak edo abusuak jaso ditu hirugarren pertsona batengandik, eta gurasoek ez dute erakusten gaitasunik haurra babesteko eta egoera berriro gertatzea eragozteko.

---

## PREMIA KOGNITIBOEKIKO ZABARKERIA

Haur-eskoletara joaten diren haurren premia kognitiboen parte handi bati eskoletan bertan erantzuten zaie. Baina familiak ere badu eginkizun garrantzitsua premia horiei erantzuteko orduan, eta esparru horretako zabarkeriaz hitz egin daiteke baldin eta honako jokabide hauek izan ohi badituzte familiako pertsona helduek:

- Ez diete haurrari bizipen aberasgarri edo hezitzailerik eskaintzen bere gaitasun kognitiboak garatzeko edo dituen estimulazio- eta ikasketa-premiei erantzuteko.
- Eragotzi egiten dituzte haurrak bere garapenean normalak diren emaitzak lortzeko egiten dituen saiakerak, edo oso interes txikia erakusten dute horren aurrean (adibidez, haurra sehaskan daukate denbora guztian; ez dute sustatzen hizkuntza edo gaitasun fisiko edo intelektualak garatzea; ez diote ematen jolasteko edo ikasteko bere adinerako tresna egokirik; ez dute onartzen haurrak jolasteko edo jarduera ludikoak egiteko premia duela; ez diete beraren galderei erantzuten; ez diote estimulu berririk aurkezten...).
- Haurra bakarrik uzten dute ikasten edo entretenitzen (jostailuekin, jolasekin edo telebistarekin), ia batere gidatu gabe.
- Ez dute haurrarekin jolasten, edo berarekin jarduera ludikorik egiten.
- Oso komunikazio mugatua dute haurrarekin, edo komunikazioa zuzentzailea da (akatsak nabarmentzea) eraikitzailea izan beharrean (arrazoitzea eta bide egokia erakustea).

---

## PREMIA EMOZIONALEKIKO ZABARKERIA

Beren premia emozionalak erantzun gabe uztea da adin txikiko haurren ongizaterako eta garapenerako esperientziarik kaltegarrienetako bat. Kasurik larrienetan, kalte iraunkorrak gera daitezke horren ondorioz.

Gurasoek ez ezik, beste pertsona batzuek ere bete ditzakete haurren premia emozionalak. Ohikoa izaten da familiako beste kide batzuek eginkizun garrantzitsua izatea horretan, eta, batzuetan, konpentsa ditzakete gurasoen defizit puntual edo iraunkorrak. Zabarkeria-egoerak gertatzen dira baldin eta (a) gurasoen jokabideak erantzuten ez badie haurraren premia emozionalari, eta (b) familia-ingurunean ez badago ordezkotzat figurarik behar horiei erantzun egokirik emateko eta gurasoen defizitak konpentsatzeko.

Haurren premia emozionalekiko zabarkeriak hiru premia-mota erantzun gabe uztea hartzen du barne:

## **1. Elkarreragina eta maitasuna**

Honako egoera hauek etengabe edo normalean gertatzen direnean gertatzen da premia horiekiko zabarkeria:

- Ez zaie jaramonik egiten haurrak elkarreragina egiteko duen premiari eta horretarako egiten dituen saiakerei, eta berarekiko axolagabetasuna eta interesik eta inplikaziorik eza erakusten da.
- Ez da emoziorik eta afekturik erakusten (ez era fisikoan, ez ahozkoan) haurrarekiko elkarreraginean.
- Ez zaie jaramonik egiten arreta erakartzeko haurrak egiten dituen saiakerei. Ez zaio laguntzarik ematen horren beharra duenean, edo gidatzea edo orientazioa behar duenean.

## **2. Arazo emozional larriei erantzutea**

Haurrari behar duenean arreta medikorik ez ematea zabarkeria den bezala, zabarkeria da tratamendu psikologiko edo psikiatrikoaren beharrari ez erantzutea arazo emozional larriak dituenen. Esparru horretako zabarkeriaren barruan daude behar duen tratamendua ez ematea, tratamendu hori oso berandu ematea, edo ez jarraitzea haurra artatzen ari diren profesionalek emandako jarraibideei

## **3. Arauak, mugak eta balio moral positiboak transmititzea**

Esparru horretako zabarkeria da haurraren jokabideari araurik, mugarik eta orientaziorik ez ezartzea, edo ia bat ere ez ezartzea, edo horiek egokiak ez izatea (zorrotzegiak zein axolagabeegiak —gainera, kontraesankorrak ere izan daitezke—). Egoera horrek haurrari arazo larriak eragiten dizkio, jokabideari zein moldatze pertsonal, familiar edo sozialari dagokienez, edo arazo horiek izateko arrisku handian jartzen du

## LABURPENA: ZABARKERIA ERAKUTS DEZAKETEN ADIERAZLEAK

Honako adierazle hauek etengabe edo normalean agertzeak susmarazi behar digu zabarkeria egon daitekeela:

### Haurraren adierazle fisikoak

- Altuera edo pisua beraren adinerako espero litekeen baino askoz txikiagoak izatea, horretarako kausa organikorik egon gabe.
- Eguraldirako desegokiak diren arropak edo oinetakoak janzteia, edo horiek oso egoera txarrean egotea.
- Higiene pertsonal eskasa.
- Azal ezkatatsua izatea begien azpian, eta begi-zuloak izatea.
- Nekea eta moteltasuna; lo-faltaren sintomak.
- Tratatu ez diren arazo medikoak, edo konpontzen denbora luzea ematen dutenak, agindutako tratamenduari behar bezala ez jarraitzearen ondorioz.
- Lesioak izatea etxean zein kalean istripuak behin eta berriro izateagatik.
- Ez erabiltzea behar dituzten betaurrekoak edo protesiak.

### Haurraren jokabidearen adierazleak

- Autoestimulazio-portaerak (hala nola kulunkatzea, burua jotzea...).
- Batere negarrik ez egitea, edo larregizko negarra.
- Etxera itzuli nahi ez izatea, edo axolagabe jokatzea gurasoen aurrean.
- Gogo handiegiz jatea, edo ezin jatea oso gose izan arren.
- Janaria lapurtzea edo kentzea.
- Atzerapen handia izatea garapen motorrean, hizkuntza-garapenean edo autonomia lortzean.
- Haur eskolara maiz berandu joatea edo ez joatea.
- Bereizi gabeko eta gehiegizko maitasuna erakustea pertsona ezezagunekin.
- Helduekiko gehiegizko mendekotasuna.
- Bakartzeko joera handia izatea.
- Kontatzea etxean bakarrik uzten dutela edo gauean berandu arte egoten dela esna.
- Nekea eta logura-sintomak.

## Gurasoen jokabide-adierazleak

- Esatea baliabide propio edo laguntza nahikorik ez izatearen ondorioz ezin dizkietela haurraren premiei erantzun.
- Erantzukizunek eta egoera pertsonalak gainditzen dituztela agertzen dira.
- Axolagabe edo geldo agertzen dira haurraren arreta-eskaeren, premien edo arazoaren aurrean.
- Alkohola edo drogak kontsumitzen dutela ematen du.
- Apatiko edo deprimituta dirudite.
- Era irrazional edo bitxian jokutzen dute.
- Beren premiak lehenesten dituzte haurraren premien aurretik.
- Askotan berandu eramaten dituzte haurrak eskolara, edo berandu hartzen dituzte.
- Garrantzia kentzen diete ikastetxeak haurrarengan ikusitako adierazleen aurrean dituen kezkei edo egiten dituen gomendioei; edo esaten dute gomendioak jarraituko dituztela, baina gero ez dute egiten..

---

## SEXU-ABUSUA

Sexu-abusua honela definitzen da: haur batekin egiten den edozein sexu-kontaktu edo -jarduera, abusugilearen plazera zein beraren beharrak asetzea helburua duena. Sexu-abusua helduek egin dezakete edo 18 urtetik beherakoek, biktima baino dezente zaharragoak badira. Horren barruan sartzen da haurra bultzatzea edozein sexu-jardueratan parte hartzera, prostituzioaren edo legearen aurkako beste jarduera batzuen bidez esplotatzea, eta haurrak erabiltzea material eta erakustaldi pornografikoak sortzeko. Sexu-abusuak sexu-jarduerak ere hartzen ditu barne, kontaktu fisikoa gertatu zein ez (adibidez, sarketa edo sarketa-saiakerak, aho-sexua, ukitzea, voyeurismoa, exhibizionismoa, masturbazioa eta hezkuntza-helbururik ez duten beste sexu-jarduera esplizituak).

Haurren inguruneko pertsonak izaten dira sexu-abusua egiten dietenak. Hori dela eta, indar fisikoa erabili gabe gertatu ohi da, abusugileak erabiltzen baititu dituen konfiantza-harremana, autoritatea edo boterea. Etnia, erlijio eta maila sozioekonomiko guzti-guztietan daude biktimak zein erasotzaileak. Biktima gehienak neskak badira ere, mutilen ehuneko handi batek ere sufritzen du sexu-abusua.

## Haurraren adierazle fisikoak

- Genitalen edo uzkiaren inguruetako lesioak.
- Baginako edo uzkiko odol-jarioak.
- Genitaletako infekzioak, edo sexu bidez transmititzen diren infekzioak (sifilia, blenorragia, jaiotzetikoa ez den hiesa, kondiloma puntazorrotzak — genitaletako garatxoak—, haurren flora arruntean ohikoak ez diren germenak dituen infekzioko bagina-jarioa: clamidia, trikomonak...).
- Zailtasuna edo mina izatea ibiltzean, korrika egitean edo eserita egotean.
- Gernu-traktuko infekzio-errepikakorrak.
- Txiza egiteko arazoak.

## Haurraren jokabidearen adierazleak

- Bere adinerako ezohikoak diren sexuari buruzko ezagutzak edo jakin-mina edo sexu-portaera (adibidez, sexu-gaiekiko gehiegizko jakin-mina edo sedukzio-portaera erakustea beste haur batzuekin edo helduekin). Portaera hipersexualizatua edo autoerotikoa.
- Loaren nahasmenduak (amesgaiztoak, gaueko izu-ikarak).
- Portaera erregresiboak.
- Azaldu ezineko beldurrak pertsona edo egoera ezezagunen aurrean.
- Uzurtasun sozial handia.

**ADI: Haurren batek balizko sexu-abusuei buruzko edozein adierazpen BETI hartu behar da aintzakotzat, eta berehala jakinarazi behar zaie Gizarte Zerbitzuei.**

## TRATU TXAR PSIKIKOAK

Tratu txar psikikoak honela definitzen dira: gurasoek haurrarekin dituzten portaera negatiboen edo elkarreagin hondatzaileen jokabide-eredu errepikatua edo jarraitua, zeinak kalte psikiko larria eragiten baitio edo hura jasotzeko arriskuan jartzen duena.

Horren barruan daude, halaber, haurrari etxeko indarkeria biziartzea eta haurra erabiltzea bikoteko gatazketan. Beste babesgabetasun-egoera batzuei loturik agertu ohi dira tratu txar psikikoak.

Garrantzitsua da tratu txar psikikoak bereiztea gurasoen jokabide kaltegarrietatik. Askotan gurasoek behar ez bezala jokatzen dute haurrekin, eta kalte emozionala eragiten diete. Hori, baina, ez da nahitaez tratu txar psikikoa. Jokabide horiek ohiko harreman-eredua direnean, ordea, bai, badira tratu txarrak.

Haurrerekiko honako jarrera eta jokabide hauek sartzen dira tratu txar psikikoen barruan:

## **1. Errefusatzeta**

Haurra errefusatzeta edo laidotzen duten ahozko zein ez-ahozko egintzak, hala nola:

- Mespreatzea, iraintzea, laidotzea eta etsaigoa edo errefusa erakusteko fisiko ez diren beste forma batzuk.
- Lotsaraztea eta irrigarri uztea emozio normalak erakusteagatik (maitasuna, mina, tristura...).
- Beti bera aukeratzea kritikatzeko eta zigortzeko.
- Jendearen aurrean umiliatzea.
- Familiaren arazoan errua berari egozte.

## **2. Izutzea**

Beldur handia eragiten dioten egintzekin mehatxatzea. Baita kalte fisiko larria egiteko ahozko mehatxu esplizituak egitea ere.

## **3. Bakartzea**

Haurrari ukatzea beste haur batzuekin edo beste heldu batzuekin elkarreragina izateko eta komunikatzeko bere premiak asetzeko aukerak, etxean zein etxetik kanpo.

## **4. Autonomia murriztea**

Haurrari eragozte edo galaraztea bere adinerako egokiak diren autonomiaren eta parte-hartzearen mailak lortzea, bere garapenerako desegokiak diren portaerak bultzatuz edo onartuz. Horren barruan dago haurrekin larregi inplikatzeta, bidegabe tartean sartzea edo muturreko menderakuntza; infantilizazioa edo guraso-eginkizunak harraraztea; eta haurra erabiltzea helduen bete gabeko desirak betetzeko.

## **5. Gehiegizko exijentzia**

Haurrari gehiegizko presioa egitea erdietsi behar dituen lorpenei dagokienez (akademikoak, fisikoak, jokabidekoak, erantzukizunekoak...) edo hartu behar dituen erantzukizunei dagokienez, baldin eta horiek nabarmenki beraren ahalmen eta gaitasunez harago badaude (haurraren adina eta ezaugarriak kontuan hartuta), edo, lortzeko modukoak izan arren, oso estres handia eragiten badiote edo bere garapen faseko propioak diren beste premia edo jarduera batzuk betetzea nabarmenki mugatzen badiote.

## **6. Etorkizun hurbilari buruzko aurreraezintasuna, ezegonkortasuna eta segurtasunik eza transmititzea**

Jokabidearen bidez zein ahozko mezuen bidez, segurtasunik ez handia transmititzen zaio haurrari bere etorkizun hurbilari buruz (adibidez, gurasoak behin betiko urrundu edo desagertuko direla).

## **7. Haurra erabiltzea bikote-gatazketan**

Gurasoetako batek edo biek haurra erabiltzen dute era aktiboan elkarri min egiteko edo haurra bestearengandik edo senide garrantzitsurengandik behin betiko urruntzeko.

## **8. Haurrari bikotekideen arteko edo bizikidetzako unitateko kideen arteko indarkeria biziartzea**

Haurrari indarkeria fisikoko edo ahozko indarkeria handiko gertaerak biziartzen zaizkio; indarkeria hori bikotekideen artekoa zein familiaren etxeko beste kide batzuen artekoa izan daiteke. Egoera horiek biziartzen zaizkiola ulertzen da baldin eta zuzeneko lekukoa izan bada, edo argi eta garbi nabaritu baditu.

Tratu txar psikikoak, seguruenik, babesgabetasun-egoerarik zailenetako bat dira detektatzen, besteak beste, adierazle fisikoetan islatu ohi ez direlako. Hauek dira ager daitezkeen adierazleetako batzuk:

## Haurren adierazle fisikoak

- Altuera edo pisua beraren adinerako espero litekeen baino askoz txikiagoak izatea, hori azaltzen duen kausa organikorik egon gabe.
- Elikadura-arazoak.
- Lo egiteko arazoak.
- Enuresia, enkopresia.
- Hizkuntza-atzerapena.
- Kexa somatikoak (buruko edo urdaileko minak, goragaleak...), kausa organikorik egon gabe

Maiz, jokabide-adierazleak agertzen dituzte tratu txar psikikoak sufritzen dituzten haurrek. Hona ohikoenetako batzuk:

## Haurren jokabidearen adierazleak

- Autoestimulazio-portaerak (hala nola kulunkatzea, burua jotzea...).
- Beren burua lesionatzeko portaerak.
- Batere negarrik ez egitea, edo larregizko negarra.
- Atzerapen handia izatea garapen motor lodian eta finean, eta koordinazio motorrean.
- Muturreko portaerak (adibidez, oso erasokorra edo oso pasiboa). Adeitsuegia edo pasiboegia izatea, edo gehiegi eskatzea, erasokorregia izatea edo arreta gehiegi eskatzea.
- Arrisku-portaerak.
- Animaliekiko krudeltasuna.
- Helduekiko gehiegizko mendetasuna.
- Beldur orokorra izatea edo gurasoetako bati beldurra izatea.
- Uko egitea beste haur batzuekin edo helduekin elkarreragina izateari.
- Frustrazioarekiko tolerantzia txikia izatea.
- Konfiantza txikia izatea bere buruarengan, autoestimu txikia.
- Azalpenik gabeko oldarkortasuna edo kasketak.
- Aurpegian espresiorik adierazi gabe eta geldo egotea denbora gehiengan.
- Bere adinerako egokia ez den jokabidea izatea: helduegia edo infantilegia.

## BESTE TIPOLOGIA BATZUK

### 1. Tratu ez egokia

Egokiak ez diren zigorrak erabiltzea: iraupenaren edo intentsitatearen aldetik kulturalki onartutako mugak gainditzen dituzte, eta haurra istripu bat izateko arriskuan jartzen dute, edo arazo larriren bat izateko edo gaixotasuna hartzeko, edo oso ondoez edo tentsio handiak eragiten dizkiote. Esate baterako, nahita janaririk edo urik gabe edukitzea, fisikoki ixtea edo mugitzea murriztea, edo nora joan ez duela etxetik botatzea.

### 2. Ustelkeria

Haurra delituak egiteko erabiltzea, edo jokabide antisozial edo oker larriak sustatzea, sendotzea edo onartzea, haurra horretaz jabetuta zein jabetu gabe. Horren barruan sartzen da, halaber, haurrari adaptazio-arazoak eragitea, familian helduen jokabide antisozialak edo delituzkoak ikustearen ondorioz, edo beste pertsona batzuk gorrotatzea edo mespretxatzea eragitea beraien sexua, erlijioa, jatorria, arraza edo etnia, sexu-orientazioa edo -identitatea, egoera fisikoa edo antzeko zerbait dela eta.

### 3. Eskekotasuna

Haurra eskean ibiltzeko edo objektuak saltzeko erabiltzea (paperezko musuzapiak, zuhaitz-adaxkak, postalak...), lantzean behin zein normalean, eta haurra bakarrik dagoela zein heldu batek lagunduta.



## PREBENTZIOA: FAMILIA ETA HAUR KALTEBERAK

Prebenitzea da arazoa agertu aurretik esku hartzea. Horretarako, identifikatu egin behar da, beren ezaugarriak eta egoerak direla-eta, zer familia dauden ahultasun-egoeran haurrak zaintzeko eta haiei arreta emateko zailtasunak agertzeari dagokionez.

Besteak beste, honako egoera hauek dakarte haurren babesgabetasuneko egoerak agertzeko arriskua:

- Gurasoak gazteak izatea, muga kognitiboak edo heldutasun-falta nabaria edukitzea, eta laguntza-iturri gutxi edukitzea edo bat ere ez.
- Gurasoek muga intelektual larriak edukitzea, eta laguntzarik ez.
- Familiak zailtasun ekonomiko edo material handiak edukitzea.
- Familiak gizarte-bazterketako egoeran egotea, edo egoteko arriskua izatea.
- Gurasoek nahasmendu psikologikoak izatea, edo ondoez psikologikoaren sintoma nabariak (batez ere depresio-sintomak), edo oldarkortasuna kontrolatzeko zailtasunak.
- Bikote-harremanean ezegonkortasuna edo gatazka handia egotea, edo familiaren etxean bizi biren pertsonen artean.
- Gurasoek estres maila handia izatea guraso-eginkizunei lotuta (adibidez, guraso bakarra izatea, seme-alaba asko edukitzea, beste seme edo alabaren batek izatea gaixotasun edo desgaitasun fisiko, mental edo sentsorialen bat...).
- Gurasoek droga edo alkohol gehiegi kontsumitzea.
- Gurasoek tolerantzia izatea zigor fisikoaren aurrean.



**ADI:** Berebiziko garrantzia dute **gertuko zaintzak eta esku-hartzeak** haur-eskolako profesionalek honako egoera hauetakoren baten berri izatean:

- Amak hauetako bat egin bazuen haurdunaldian:
  - Medikuek eta erizainek agindutako higiene- eta osasun-neurriak nabarmenki ez betetzea behin eta berriro (kontrol medikoak, atsedean hartzea, elikadura, medikazioa...).
  - Droga, alkohol edo mendekotasuna sortzen duen beste substantziaren bat larregi kontsumitzea.
  - Bikote-harreman bortitzetan egotea.
  - Haurdunaldiak jarraitzeko edo umekiaren osasunerako arrisku nabaria ekarri zuten egintzak.
  - Haurdunaldiarekiko eta izan behar zuten haurrarekiko errefusa edo sentimendu negatiboak.
- Guraso-eginkizunak betetzen dituenetako batek iraganean tratu txarren, zabarkeriaren edo sexu-abusuaren egintza larriak egin bazituen beste haurren baten kontra, edo bikote-indarkeriaren egoera larrietan parte hartu bazuen eta ez badu egin arazo horiek eragin zituzten kausak aldatu dituen tratamendu- edo errehabilitazio-prozesurik.
- Gurasoek iraganean bizi izan baziren edo harremanak izan bazituzten haurrari edo haren neba-arrebei kalte larriak egin zizkieten pertsonekin (eraso fisikoak, sexu-erasoak, jokabide bortitzak etxean...), eta gaur egun ere antzeko ezaugarriak dituzten pertsonekin bizi badira edo harremanak badituzte.
- Ematen badu guraso-eginkizunak betetzen dituzten pertsonetakoren batek osasun mentaleko nahasmenduren bat duela, eta horrek errealitatearekiko kontaktua galarazten diola, eta adimen-gaitasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna mugatzen diola eta bizimodu autonomoa egiteko ezgaitzen duela. Agian hauetakoren bat gertatu da: suizidio-adierazpenak edo -saiakerak, eldarnioak, haurra guztiz errefusatzera, edo kontrola galtzeko eta haurrari kalte larriak egiteko beldurra.

Beraien ongizatea eta garapen osasuntsua bermatzeko, haurrak ingurune seguru eta babeslean hazi behar dira (familian, eskolan eta komunitatean), zeinak beraien premia fisiko, emozional, sozial eta kognitiboei eta segurtasun-premiei erantzuten baitie. Aurreko ataletan jorratu ditugun haurren babesgabetasunaren eta kalteberatasunaren egoerek premia horiek betetzea galarazten dute, edo horretarako mehatxu handia dira. Baina, larritasun edo mehatxu maila horretara iristen ez badira ere, beste zenbait egoera eta gurasoen jokabide ere desagokiak dira. Haurrekiko harremanetako edo tratuko, edo haiek hezteko edo zaintzeko jokabide horiek ez dira positiboak; gurasoek saihestu beharko lituzkete, eta seme-alaben premietarako egokiagoak diren beste jokabide batzuekin ordeztu beharko lituzkete. Jokabide desagoki horiek irauten dute, besteak beste, sozialki eta kulturalki toleratzen direlako, eta “normalizatutzat” eta ez-kaltegarritzat jotzen direlako. Testuinguru soziokulturalaren arabera, ezberdinak dira onargarritzat edo onartezintzat jotzen diren jokabideak.

Egia da gurasoen jokabide horiek ez diotela kalte handirik edo larririk eragingo haurren garapenari epe laburrean, baina, zalantzarik gabe, eragina dute, eta horrelako kalteak eragin litzakete denbora luzean iraunez gero edo maiztasun edo intentsitate handiagoa izango balute.

Zorionez, gero eta tolerantzia gutxiago du gizarteak jokabide horiekin (adibidez, haurrak euren osasunerako kaltegarriak izan daitezkeen giroetan egotea). Gure testuinguru soziokulturalean, hauek dira jokabide horietako usuenetako batzuk:

- Indar fisikoa noizbehinka erabiltzea (kalte fisiko handirik edo lesiorik eragin gabe, adibidez gogorak ez diren zaplastakoak ematea ipurmasailetan edo buruan, edo eskuan jotzea) gaitzespena erakusteko edo haurren portaera kontrolatzen saiatzeko.
- Osasun-arazorik eragin ez duten arren irizpide medikoen arabera egokiak ez diren dietak edo elikadura-ohiturak (elikaduraren aldetik orekatuak ez diren jaki gehiegi erabiltzea).
- Behar adina osasun-zainketa prebentibo ez egitea (hala nola aho-hortzen osasuneko, parasitoen prebentzioa edo tratamendua...), pediatrik jarraipena ez egitea haurtxo osasuntsuei, higiene pertsonal eskasa...
- Behar adina ez gainbegiratzea.
- Gurasoen premiak eta interesak lehenestea haurren maitasun-, komunikazio- eta estimulazio-premien aurretik. Eskuarki gailu elektronikoak eta telebista erabiltzea haurrak gurasoekiko elkarreraginik gabe entretenitzeko. Haurren zaintza gehiegitan uztea beste batzuen esku.

- Haurrak beren ohituretan (otorduak, ordutegiak, atsedanak, loa...) interferitzen duten helduen gizarte-jardueretan parte hartzea.
- Gurasoek edo beste heldu batzuek eztabaidatzea haurren aurrean. Haurrak noiz edo noiz erabiltzea helduen arteko gatazketan.
- Haurrei noiz edo noiz errefus- edo axolagabetasun-adierazpenak edo eraso fisikoaren mehatxuak egitea.
- Alkohola kontsumitzea haurrean aurrean.
- Noizbait haurren aurrean beste pertsona batzuekiko gorrotoa, mespretxua, indarkeria edo menderakuntza erakustea haien sexua, erlijioa, jatorria, arraza edo etnia, sexu-orientazioa edo -identitatea, egoera fisikoa edo antzeko zerbait dela eta.
- Haurrari familiarik kanpoko jokabide-eredu bortitzak biziartzea.

**Haurrekiko harremanetako edo tratuko, edo haien hezteko edo zaintzeko zenbait jokabide ez dira positiboak; gurasoek saihestu beharko lituzkete, eta seme-alaben premietarako egokiagoak diren beste jokabide batzuekin ordeztu beharko lituzkete.**

**Jokabide desagoki horiek irauten dute, besteak beste, sozialki eta kulturalki toleratzen direlako, eta “normalizatutzat” eta ez-kaltegarritzat jotzen direlako.**

Garrantzitsua da jokabide horiek aldatzea. Horretarako, Gizarte Zerbitzuek **gurasotasun positiborako jarduketak eta programak** egiten dituzte, haurren ongizaterako eta garapenerako positiboak diren hezkuntza-, harreman- eta tratu-jokabideak sustatzeko, eta laguntzeko identifikatzen zer jokabide diren desagoki eta jabetzen zer kalte eragiten dituzten. Jarduketa eta programa horiek komunitateko guraso guztiei zuzenduta daude, eta zenbait bidez gauzatzen dira: material idatziak paperean zein internetez hedatuz, hitzaldiak eta lantegiak emanez, komunikabideetako mezuen bidez...

Haur-eskoletako profesionalak eginkizun garrantzitsua dute horrelako mezuak hartzailerei helarazten: beren eskoletan jarduketa eta programa horiek abian jarriz edo abian jartzen lagunduz, gurasoekin dituzten elkarrizketetan, tutoretzetan edo bestelako ohiko harremanetan mezu horiek helaraziz, laguntza eta orientazioa emanez (zuzenean, edo Gizarte Zerbitzuetara edo behar dituzten beste zerbitzu komunitario batzuetara bidaliz), eta eredu positiboa emanez haurrekiko tratuan eta harremanetan eta haien zainketan.

## 0-5 URTE BITARTEKO HAURREN OINARRIZKO PREMIAK: ASEBETETZEAREN ADIERAZLEAK:0-2 URTE <sup>2</sup>

PREMIA FISIKOAK	SEGURTASUNA	PREMIA EMOZIONALAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Oro har osasun ona; ohiko gaixotasunak; gaixotasunek eskatzen duten tratamendua eta jarraipen medikoak ematen dizkiote haurrari.</li> <li>• Altuera eta pisua, espero daitekeen mailan.</li> <li>• Dieta egokia eta elikagarria ematen diote haurrari.</li> <li>• Erregulartasunez bainatzen dute.</li> <li>• Eguraldirako egokia den arropa.</li> <li>• Arropa garbia, normalean (txizarik edo gorozki- edo janari-hondarrik gabe).</li> <li>• Etxea garbi dago, haurraren ohea barne.</li> <li>• Lo-ordutegi erregularra.</li> <li>• Gurasoak arduratzen dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin.</li> <li>• Ordutegi egonkor eta egokiak (otorduak, loa, bainua...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Behar bezala artatzen dituzte haurrak egindako lesioak.</li> <li>• Lesiorik edo marka fisikorik edukiz gero, horiek azalpen onargarria dute.</li> <li>• Gurasoek neurriak hartzen dituzte istripuak saihesteko.</li> <li>• Haurra babesten dute besteen eraso edo abusuetatik.</li> <li>• Seguruak dira haurrak erabiltzen dituen jostailu eta objektuak.</li> <li>• Gurasoek ziurtatzen dute haurra toki seguruetan jolastean dela etxetik kanpo dagoenean.</li> <li>• Haurra beti egoten da gaitasuna duen pertsona arduratsuren batekin zainduta, etxean zein etxetik kanpo.</li> <li>• Gurasoek gainbegiratzen dute zer harreman dagoen haurraren eta beraren neba-arreben artean.</li> <li>• Oro har, neba-arrebe ondo tratatzen dute haurra.</li> <li>• Haurra zaintzen duten helduak pertsona ezagunak dira beti, eta haien kopurua mugatua da.</li> <li>• Beste norbaitekin utzi behar izanez gero, gurasoak arduratzen dira haurra gaitasuna duen pertsona arduratsuren batekin uzteaz.</li> <li>• Gurasoek haurrari erakusten diote pertsona ezagunak bereizten ezezagunetatik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurrak harreman egonkorra du heldu batekin, gutxienez.</li> <li>• Pertsona bereberek zaindu ohi dute haurra.</li> <li>• Esna dagoenean, gurasoetako baten ardurapean egoten da haurra.</li> <li>• Gurasoek kontsolatu egiten dute haurra gaixorik edo ondoez dagoenean edo mina hartu duenean.</li> <li>• Erantzun egiten diete haurrak komunikatzeko eta hitz egiteko egiten dituen ahaleginei.</li> <li>• Gurasoek gozatu egiten dute haurrarekin komunikatzen.</li> <li>• Errefortzua ematen diete, eta harrera ona egiten diete haurraren aurrerapen eta lorpenei.</li> <li>• Zenbait errutina izaten ditu haurraren egunerokotasunak.</li> <li>• Gurasoen arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira.</li> <li>• kontaktu fisiko positiboa dago gurasoen eta haurraren artean. Helduek gozatzen dute horrekin.</li> <li>• Gurasoek haurrarekiko dituzten jokabidea eta erantzunak aurreikusteko modukoak eta koherenteak dira.</li> <li>• Maiz erakusten diote maitasuna haurrari naturaltasunez.</li> <li>• Bera den bezala baloratzen dute haurra.</li> <li>• Gurasoak haurraz harro daude.</li> <li>• Haurra familiako kide gisa onartzen dute.</li> <li>• Haurra partaide da familiako ospakizunetan.</li> <li>• Gurasoek behar adinako denbora ematen dute haurrarekin lotura positibo eta sendoa eratzeko.</li> <li>• Sentikortasunez erantzuten diote haurrari.</li> <li>• Familian maitasun-loturak eratzen laguntzen dute.</li> </ul>

## PREMIA SOZIALAK

- Haurrak aukera ugari izaten du beste pertsona batzuekin jolasteko eta komunikatzeko.
- Haurrak beste haur eta heldu batzuekin harremana izatea bultzatzen dute.
- Beste haur batzuekin jolastera animatzen dute.
- Maiz bisitatzen ditu lagunak eta senideak.
- Gurasoek laguntza edo aholkua bilatzen dute haurraren portaerarekin arazoak izanez gero.
- Gurasoek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurraren portaera maneiatzeko (errefortzu positiboa, negoziazioa, eredu ematea, sariak, distraitztea, konbentzitzea, iraingitzea eta abar).
- Jokabiderako muga eta arau argiak daude familian.
- Muga eta arau horiek koherenteak dira, eta gurasoek errespetatzen dituzte.
- Haurrari laguntzen diote sentimendu negatiboak kontrolatzen ikasten eta egokiro adierazten.
- Beste haur eta helduekin harremana izaten irakasten diote haurrari.
- Beste pertsonak eta haien gauzak errespetatzen irakasten diote haurrari.
- Txandak errespetatzen irakasten diote.
- Negoziatzera animatzen dute.
- Gurasoek beste pertsonekin harremana izaten duten modua eredu egokia da haurrarentzat.
- Jokabide bortitza edo krudela ez izaten irakasten diote haurrari.

## PREMIA KOGNITIBOAK

- Ingurunea esploratzeko eta aktiboa izateko estimulatzten dute haurra.
- Ikastera animatzen dute haurra.
- Gauza batzuk bere kabuz egitera animatzen dute.
- Erabakiak hartzen uzten diote, aukera errazak eskainita.
- Independentea izateko ahaleginak errespetatzen dizkiote.
- Jolastera animatzen dute.
- Nolabaiteko askatasuna du ingurunea esploratzeko.
- Ingurunearekin jakin-mina erakusten du (pertsonak, jostailuak eta abar).
- Bere adinerako jostailu egokiak ditu.
- Bere adinerako aurreikusten den moduan jolasten da.
- Haurraren jostailuak, liburuak eta abar kontuz tratatzen dituzte.
- Paseatzera atera ohi dute etxetik kanpo.
- Haurrak bere adinerako aurreikusten den moduan ikasten du adierazten eta hitz egiten.
- Behar bezala erantzuten du soinu eta ahotsen aurrean.
- Bi urte ditueneko aginduen aurrean erantzuten du.
- Gurasoak haurrarekin hitz egin, kantatu eta jolastu egiten dira.
- Gurasoek haurrarekin irakurtzen edo begiratzen dituzte liburuak, edo ikusten dute telebista.

## 0-5 URTE BITARTEKO HAURREN OINARRIZKO PREMIAK: PREMIAK ASEBETETZEAREN ADIERAZLEAK: 3-5 URTE

PREMIA FISIKOAK	SEGURTASUNA	PREMIA EMOZIONALAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Oro har osasun ona; ohiko gaixotasunak; gaixotasunek eskatzen duten tratamendua eta jarraipen medikoak ematen dizkiote haurrari.</li> <li>Altuera eta pisua, espero daitekeen mailan.</li> <li>Dieta egokia eta elikagarria ematen diote haurrari.</li> <li>Erregulartasunez baintzen da.</li> <li>Eguraldirako egokia den arropa.</li> <li>Arropa garbia, normalean (txizarik edo gorozki- edo janari-hondarrrik gabe).</li> <li>Etxea garbi dago, haurraren ohea barne.</li> <li>Gaixotasun errepikakorrek azalpen medikoa dute.</li> <li>Lo ordutegi erregularra.</li> <li>Hortzak garbitzen ditu erregulartasunez.</li> <li>Gurasoak arduratzen dira haurrak behar adina lo egin dezan eta isiltasuna egon dadin.</li> <li>Ordutegi egonkor eta egokiak ditu haurrak (otorduak, loa, bainua...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Arreta egokia ematen zaie haurrak egindako lesioei.</li> <li>Lesiorik edo marka fisikorik edukiz gero, horiek azalpen onargarria dute.</li> <li>Gurasoek neurriak hartzen dituzte istripuak saihesteko.</li> <li>Haurra babesten dute besteen eraso edo abusuetatik.</li> <li>Seguruak dira haurrak erabiltzen dituen jostailu eta objektuak.</li> <li>Toki seguruen bat dago etxean haurra jolas dadin.</li> <li>Gurasoek ziurtatzen dute haurra toki seguruetan jolasten dela etxetik kanpo dagoenean.</li> <li>Haurra beti egoten da gaitasuna duen pertsona arduratsuren batekin zainduta, etxean zein etxetik kanpo.</li> <li>Gurasoek gainbegiratzen dute zer harreman dagoen haurraren eta beraren neba-arreben artean.</li> <li>Oro har, neba-arrebek ondo tratatzen dute haurra.</li> <li>Haurra zaintzen duten helduak pertsona ezagunak dira beti, eta haien kopurua mugatua da.</li> <li>Beste norbaitek utzi behar izanez gero, gurasoak arduratzen dira haurra gaitasuna duen pertsona arduratsuren batekin uzteaz.</li> <li>Gurasoek haurrari erakusten diote pertsona ezagunak bereizten ezezagunetatik.</li> <li>Bere burua babesteko gaitasunak irakasten diote.</li> <li>Haurra eskolara joanez gero, beti norbait joaten berearen bila.</li> <li>Haurra eskolara eramaten duten edo eskolatik hartzen duten pertsonak gutxi eta ezagunak dira, eta gaitasuna dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Haurrak harreman egonkorra du heldu batekin, gutxienez.</li> <li>Pertsona bereberek zaindu ohi dute haurra.</li> <li>Esna dagoenean, gurasoetako baten ardurapean egoten da haurra.</li> <li>Gurasoek kontsolatu egiten dute haurra gaixorik edo ondoez dagoenean edo mina hartu duenean.</li> <li>Errefortzua ematen diete, eta harrera ona egiten diete haurraren aurrerapen eta lorpenei.</li> <li>Oro har, era positiboan erantzuten diete haurraren hizketei.</li> <li>Errefortzu ematen diote gauza berriak egiten saiatzen denean.</li> <li>Babestu egiten dute gauza berriak egiten saiatzean porrot egiten badu.</li> <li>Zenbait errutina izaten ditu haurraren egunerokotasunak.</li> <li>Gurasoen arteko desadostasunak indarkeriarik gabe konpontzen dira.</li> <li>Kontaktu fisiko positiboa dago gurasoen eta haurraren artean. Gurasoek gozatu egiten dute horrekin.</li> <li>Maiz erakusten diote maitasuna haurrari naturaltasunez.</li> <li>Bera den bezala baloratzen dute haurra.</li> <li>Gurasoak haurraz harro daude.</li> <li>Haurra familiako kide gisa onartzen dute.</li> <li>Haurra partaide da familiako ospakizunetan.</li> <li>Gurasoek behar adinako denbora ematen dute haurrarekin lotura positiboa eta sendoa eratzeko.</li> <li>Familian maitasun-loturak eratzen laguntzen dute.</li> <li>Bere beldurrez eta kezkez hitz egitera animatzen dute haurra.</li> <li>Aurreikusteko modukoak eta koherenteak dira haurrari etxean ematen dizkioten erantzunak.</li> </ul>

## PREMIA SOZIALAK

- Haurrak beste haur eta heldu batzuekin harremana izatea bultzatzen dute.
- Maiz bisitatzen ditu lagunak eta senideak.
- Beste haur batzuekin jolastera eta partekatzerara animatzen dute.
- Gurasoek laguntza edo aholkua bilatzen dute haurraren portaerarekin arazoak izanez gero.
- Gurasoek metodo egokiak erabiltzen dituzte haurrari irakasteko egokiro jokatzeko (errefortzu positiboa, negoziazioa, eredu ematea, sariak, distraitzea, konbentzitzea, iraungitzea eta abar).
- Jokabiderako muga eta arau argiak daude familian.
- Muga eta arau horiek koherenteak dira, eta gurasoek errespetatzen dituzte.
- Beste pertsonak eta haien gauzak errespetatzen irakasten diote haurrari.
- Txandak errespetatzen irakasten diote.
- Negoziatzerara animatzen dute.
- Bere emozioak kontrolatzen irakasten diote.
- Gurasoek beste pertsonekin harremana izaten duten modua eredu egokia da haurrarentzat.
- Jokabide bortitza edo krudela ez izaten irakasten diote haurrari.
- Garaiz iritsi ohi da eskolara.
- Saiatzen dira haurrak ikus ez ditzan xelebreegiak diren edo beldurra eragin diezaioketen helduen jokabideak.
- Toki publikoetan jokabide egokia izaten irakasten diote haurrari, eta jokabide hori sustatzen dute.

## PREMIA KOGNITIBOAK

- Ingurunea esploratzeko eta aktiboa izateko estimulatzen dute haurra.
- Ikastera animatzen dute haurra.
- Gauza batzuk bere kabuz egin dezan animatzen dute.
- Hitz egin dezan eta hizketetan parte har dezan animatzen dute.
- Erabakiak hartzen uzten diote, aukera errazak eskainita.
- Bere adinerako egokiak diren askotariko jostailuak ditu.
- Haurraren jostailuak, liburuak eta abar kontuz tratatzen dituzte.
- Paseatzera atera ohi dute etxetik kanpo.
- Gurasoek haurrari liburuak irakurri ohi dizkiote; istorioak kontatu ohi dizkiote; berarekin jolastu ohi dira, edo berarekin ikusi ohi dute telebista.
- Haurrak etxetik kanpoko toki berriak esploratzen ditu helduek gainbegiratuta.
- Haurra, eskolatuta badago, erregularitasunez joaten da ikastetxera.
- Haurra eskolatuta badago, gurasoak tutoretzetara eta irakasleekiko hitzorduetara joaten dira.